# *Idiazabalgo Udala*

( GIPUZKOA )

| 82/2018 ALKATETZA DEKRETUA, | 82/2018 DECRETO DE ALCALDÍA, |
|---|---|
| **otsailaren 15ekoa** | **de 15 de febrero** |
| **IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jaunak, IDIAZABALGO ALKATE-UDALBURUAK,** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeetako Legearen 25. 7 artikuluaren xedatutakoari jarraiki, | **D. IORITZ IMAZ BAZTARRIKA, Sr. ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL**, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y el artículo 25.7 de la Ley 2/2016, 7 de abril, de Entidades Locales de Euskadi, |
| **AURREKARIAK** | **ANTECEDENTES** |
| **I.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren bitartez Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen zentrala eta Zerbitzu orokorren kontratazio mahaiaren araudia onartu zituen | **I.-** El Consejo de Diputados mediante Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, reguló la central de contratación foral y la mesa de contratación de servicios generales de la Diputación Foral de Gipuzkoa. |
| Kontratuen esleipena hobeto antolatu eta modu arrazionalagoan egite aldera, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuaren azaroaren 14eko 3/2011 Errege Dekretu-Legegileak aukera ematen du sektore publikoko entitateek obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa zentraliza dezaten, zerbitzu espezializatuen esku utzita. | Al objeto de racionalizar y ordenar la adjudicación de sus contratos el Real Decreto-Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, contempla la posibilidad de que las entidades del sector público puedan centralizar la contratación de obras, servicios y suministros, atribuyéndola a servicios especializados. |
| **II.-** Idiazabalgo Udalbatza osoak, 2011ko ekainaren 30ean, onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze zentralizatuko sistemari –foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartzea. | **II.-** El Pleno del Ayuntamiento de Idiazabal, en sesión celebrada el 30 de junio de 2011, aprobó la adhesión al convenio del sistema de adquisición centralizada-central de contratación foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa. |
| **III.-** Ekainaren 30eko 288/2017 Alkatetza Dekretu bidez erabaki zen "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez Ibilgailuen erabilera edo zirkulazioa dela eta sorraraz daitezkeen arriksuen asegurua kontratatzeko esparru akordioa"ri atxikizea. | **III.**-Mediante Decreto de Alcaldía 288/2017, de 30 de junio, se aprobó la adhesión al expediente de contratación del "Acuerdo Marco para la contratación de la cobertura de seguro de los riesgos de uso y circulación de vehículos a través de la Central de Contratación Foral" |
| **IV.-** Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak (X17015) espedienteari hasiera eman zion 2017ko uztailaren 26ko akordioaren bitartez. | **IV.-** Posteriormente, el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa inició el expediente de contratación (X17015) mediante acuerdo adoptado el 26 de julio de 2017. |
| **V.-** Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak 2017ko azaroaren 6ko foru aginduaren bitartez, Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros, I.F.Z. A 48001648 enpresarekin "Foru | **V.-** Mediante Orden Foral del Diputado de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de 6 de noviembre de 2017, se resolvió concluir con Bilbao, Compañia Anónima de |

| | |
|---|---|
| Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen erabilera edo zirkulazioa dela eta sorraraz daitezkeen arriskuen asegurua kontratatzeko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen. | Seguros y Reaseguros, I.F.Z. A 48001648, el expediente "Acuerdo Marco para la contratación de la cobertura de seguros de los riesgos de uso y circulación de vehículos a través de la Central de Contratación Foral" |
| **VI.** Esparru akordioa, 2017ko abenduaren 1an izenpetu da. | **VI.-** El Acuerdo Marco ha sido formalizado el 1 de diciembre de 2017. |
| **VII** Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros, I.F.Z. A 48001648 aurkeztu du 83 €ko kauzio-aseguru bitartez, 2018ko otsailaren 15ean (erregistroko 123. sarrera-zenbakiduna) | **VII.** Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros, I.F.Z. A 48001648, ha presentado la garantía, mediante seguro de caución por importe de 83 €, con fecha 15 de febrero de 2018 (registro de entrada nº 83) |
| **LEGE-OINARRIAK** | **FUNDAMENTOS DE DERECHO** |
| Araubideari dagokionez, Toki Administrazioen eremuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 204. artikuluan Foru Aldundiei kontratazio-zentralak sortzeko aukera ematen die eta 205. artikuluak aurreikusten du udal-erakundeak eta sektore publikoko beste entitate batzuk kontratazio sistema horietara atxiki daitezkeela, komeni diren akordio edo hitzarmenak eginda. Aurrekarietan zehaztuta bezala, Udala sistema horretara atxiki zen. | En lo que al procedimiento se refiere, en el ámbito de la Administración Local, el artículo 204 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, dispone la posibilidad de crear centrales de contratación, al mismo tiempo que el artículo 205 prevé que mediante los correspondientes acuerdos, puedan adherirse a dichos sistemas de contratación las entidades locales y otras entidades del sector público. Tal y como se ha señalado en los antecedentes, el Ayuntamiento se adhirió a dicho sistema. |
| Foru-kontratazioaren zentralak oso-osorik izapidetu du prozedura esparru akordioa eginda, Sektore Publiko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu-Legegilearen III. Liburuko II.Tituluko II.Kapituluan aurreikusten denari jarraituz; **ondoren atxikitako erakunde bakoitzak esleitu eta formalizatu beharko ditu, esparru akordioan oinarritutako kontratuak**, **Errege Dekretu-Legegilearen 198. artikuluan xedaturikoaren arabera.** | La Central de Contratación Foral ha tramitado en su integridad el procedimiento mediante la celebración del acuerdo marco, conforme a lo previsto en el Capítulo II del Título II del Libro III del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, **correspondiendo a cada ente adherido adjudicar y formalizar los contratos basados en el acuerdo marco, según el artículo 198 del Real Decreto-Legislativo.** |
| Idiazabalgo Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluarekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea. | Corresponde al Ayuntamiento de Idiazabal en tanto ente adherido al presente expediente tramitado por la Central de Contratación Foral, de conformidad con el art. 6 del Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, la adjudicación, formalización y autorizacion del gasto correspondiente al contrato derivado del Acuerdo Marco, del que interesa esta administración. |
| Behin esparru akordioa sinatu ondoren, zerbitzuaren arduradunak 2017ko abenduaren | Una vez perfeccionado el Acuerdo Marco, la responsable del servicio, en informe de 13 de |

13an emandako txostenaren arabera, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, zerbitzuari buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea

Administrazio honek kontratatzea beharko duen zerbitzuaren zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 2.168,65 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastu arrunta da-eta, ez da beharrezkotzat jotzen izapidetzea konpromiso-krediturik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 8b eta 22. artikuluek xedatutakoari jarraituz.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Eskumenari dagokionez, esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzearen berrestea eta eratorritako kontratuaren esleipena onartzeko eskumena Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburuarena da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

**EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.-** Espedienteari atxikitzea berrestea eta esleitzea Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros enpresari, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen erabilea edo zirkulazioa dela eta sorraraz daitezkeen arriskuen asegurua kontratatzeko, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARRENA**.- Baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion 1.660 €, euroko gastua, ondoko kontu-partida ekonomikoen kargura. 1.224.00.153.40. 2018

8. ibilgailuen aseguruak kontratatzen dira: (1. eranskina)
1.Motoziklea: 125 €

diciembre de 2017, dejando constancia de la necesidad de contar con el mencionado servicio propone adjudicar y formalizar el contrato de servicios con la mercantil con la que se concluyó el acuerdo marco.

La demanda previsible del servicio a contratar por parte de esta Administración, hace estimar un gasto aproximado anual de 2.168,65 euros, IVA excluido. Se trata de un gasto corriente por lo que a los efectos de los artículos 8 b y 22 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, no es necesario tramitar créditos de compromiso.

Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 198 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, procede en estos momentos adjudicar el contrato privado derivado a la empresa Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros con arreglo a los términos establecidos en la conclusión del acuerdo marco.

El órgano competente para aprobar la ratificación de la adhesión al expediente de contratación del acuerdo marco y la adjudicación del contrato derivado corresponde al Alcalde-Presidente según la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Ratificar la adhesión del expediente y adjudicar el contrato derivado del Acuerdo marco para la contratación de la cobertura de los riesgos de uso y circulación de vehículos a través de la Central de Contratación Foral a la empresa Bilbao, Compañia Anónima de Seguros y Reaseguros, en los términos establecidos en la conclusión del propio acuerdo marco.

**SEGUNDO.-** Autorizar y disponer el gasto imputable al presente ejercicio que asciende a la cantidad de 1.660 €, con cargo a la siguiente partida económica: 1.224.00.153.40. 2018

Se aseguran 8 vehículos (Anexo 1)
1 Motocicleta: 125 €

| | |
|---|---|
| 4. Ibilgailu bereziak: 4x95=380<br>2 turismo: 2x270=540<br>1 furgoneta: 615<br><br>**HIRUGARRENA**.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatze,. ez hamabost egun baliodun baino geroago, esleipen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.<br><br>Eratorritako kontratuak eraginak sortuko ditu 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.<br><br>**LAUGARRENA.** Esleipen honen eta kontratuaren formalizaziaren publizitatea egitea kontratugilearen profilean. | 4 Vehículos especiales: 4x95=380<br>2 Turismos: 2x270=540<br>1 furgoneta: 615<br><br>**TERCERO.-** Formalizar el contrato con la empresa adjudicataria, no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquél en que se reciba la notificación de esta adjudicación.<br><br>El contrato derivado surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2018.<br><br>**CUARTO.** Dar publicidad a la presente adjudicación, así como de la formalización del contrato en el perfil del contratante. |

**I: ERANSKINA**

| matrikula/bastidor | |
|---|---|
| C1649BCG | Motoa |
| E 2745BFV | Barredora |
| 7816FKN | Pic up |
| SS1199AW | Nissan Patrol |
| E3755BCH | Kubota excavadora |
| SS12054VE | Dumper |
| 4998KFF | Pilarrenea furgoneta |
| bastidor nº 000000000001054 | retroexcavadora |

Nire aurrean,

**ALKATE UDALBURUAK**
Ioritz Imaz Baztarrika

**IDAZK KONTU HARTZAILEAK**
Isabel Fuertes Matxin

Firmado por 72456235W IORITZ IMAZ (R: P2004800E) el día 15/02/2018 con un certificado emitido por Herritar eta

Firmado por FUERTES MATXIN, ISABEL (FIRMA) el día 15/02/2018 con un certificado emitido por AC DNIE 001

*Idiazabalgo Udala*

( GIPUZKOA )